

Donostia UP! planak, 9 milioi euro baino gehiagorekin, bere aurrekontuari %14 gehitu dio 2018rako

Planaren funtsezko ardatza pertsonak dira eta horien inguruan enpresak eta lurraldea bezalako bestelako kontzeptuak egituratzen dira, berrikuntza, talentua eta smart garapenarekin maisu ildo gisa

9,2 milioi euroko aurrekontu batekin, iaz baino %14 gehiago, Donostiako Alkateordetzak, Donostia UP! 2018 planaren bidez, hainbat neurri berriz jarri ditu abian, epe ertainean eta luzean aplikatzeko, giza kapitala, enpresa lehiakortasuna eta lurralde kohesioaren kontzeptuen inguruan biratzen duen estrategia baten barnean. Planak jarraitzen du talentua erakartzearen eta atxikitzearen eta berrikuntza sustatzearen aldeko apustua egiten, eta beste bi kontzeptu bereganatu ditu: enpleguaren kalitatea eta berdintasuna.

Ernesto Gasco Alkateordeak honakoa azpimarratu nahi izan zuen: "Donostia UP! 2018 plana berriz ere hiriko ekonomia hazkuntza jasangarria sendotzeko tresnatzat jo da. Aurten, neurri desberdinak uztartu dira, esaterako; enplegua eta kohesioa bezalako epe laburrerako estrategiak, eta baita ere hiri azkarra edo talentua eta berrikuntza bezalako etorkizunera begiratzen duten beste batzuk. Bestalde, aurtengo Planak genero berdintasunera eta enpleguaren kalitatera zuzenduriko zeharkako osagaia nabarmen zabaldu da"

Plan berria hiriarentzat funtsezkoak diren hiru esparruetako esku-hartzearen logika batetik proposatu da:

- **PERTSONAK**, gizarte ororen oinarri gisa. Pertsonen lagundu behar zaie garatzeko eta lan munduan txertatzeko, talentua sustatuz eta gizarte kohesioaren alde eginez.
- **ENPRESAK**, enplegua sortzeko eta gizarte eta ekonomia garatzeko funtsezko tresna gisa, balio erantsi handiagoa duten eta berrikuntzaren aldeko apustua egin dutenak nabarmenduz
- **LURRALDEA**: alegia; auzoak, azpiegiturak, espazioak eta enpresen eta pertsonen jarduera hedatzen den eta SMART proiektuen garapenaren xede diren ingurua osatzen duten ekipamenduak.

Esku-hartze eremu hauetaz gain, Donostia UP! Planak hirirako funtsezko lau apustu planteatu ditu:

- **Berrikuntza** sustatzea, lurraldeko enpresek eta entitateek euren jarduerak planteatzeko oinarri hartu behar duten funtsezko balio gisa. Horrenbestez, lehentasuneko xedetzat jo da balio erantsi handiagoa duten enpresa proiektuei laguntzea eta hiriko berrikuntza ekosistema sustatzea.



- **Talentuaren** aldeko apustua, hirirako funtsezko aktibo gisa, lan merkatuan txertatzeko edo jarduera berriak sortzeko gaitasunak dituzten pertsonen nabarmen lagunduz.
- Gaitasunen garapen horretan **heziketa** ezinbestekoa da, horrenbestez, plana nabarmentzen da gazteen artean berrikuntza eta ekintzailatza sustatzen dituzten hainbat programak dituzten hezkuntza etapetan.
- Donostia garapen azkarra burutzen ari da, munduan erreferentzia den **smart** hiri bilakatu nahi du, hiriko zein auzoetako erronkei aurre egiteko aukera bideratzen duena, teknologiak eskaintzen dituen aukeren bidez.

Donostia UP! 2017 planean burutuko diren jardueren artean honako hauek nabarmentzen dira:

1.- Giza kapitala eta talentua garatzea berrikuntzarekin lotutako gaitasunen bidez

- **Donostia Innovation Campus** programa abian jartzea. Programa horrek berrikuntza gaitasunak garatzen ditu hiriko ikastetxetan zein lan hezkuntzako eskoletan.
- **Donostia Desing Institute Zentre** garatzea eta kaleratzea, hau da, maiatzean bi kurtsoekin eta master batekin bere jarduerari ekin egingo dion diseinu eskola. Urritik aurrera, eskolak ikasleei zein profesionalen zuzenduriko hiru prestakuntza programa eskaintzea aurreikusi du.

2.- Proiektu ekintzaile eta berritzaile berriei laguntzea programa desberdinen bidez

- **Explorer**: une hauetan, Donostia Sustapena, Explorer programaren bidez, babesten ari den hamahiru proiektu daude mahai gainean.
- **Ekin+**: Proiektu berritzaileak bizkortzeko prozesu intentsiboa Donostia Sustapenaren eta hiriko enpresa erreferenteen eskutik. Une hauetan azken edizioa amaitu berri da, bost proiektuen parte-hartzearekin.
- Enprekin **Startups** garatzeko eta laguntzeko akordioak

3.- Enpresa proiektu berritzaileen lehiakortasunaren hobekuntza, DonostiaINN programaren hurrengo laguntzekin:

- **Talentua Itzultzeko Programa**: itzultitako donostiarrak kontratatzen dituzten enpresetarako partidak.
- **Talentu Berritzailearen Programa**: 35 urtetik beherako langile gaituak kontratatzea sustatzeko laguntzak, enpresako proiektu berritzaileak garatzeko
- **Ikertu Programa**: 30 urtetik beherako langile gaituak kontratatzea sustatzeko laguntzak, ikerketan aurretiko esperientziarik gabe.
- **Bonu Teknologikoak**: hirian kokatutako hainbat zentro teknologikok zenbait zerbitzu enpresen eskura jartzen du, besteak beste: Tecnalia, Ceit-4, Vicomtech, Tecnum, Biodonostia, CIC Nanogune eta Basque Culinary Center.



Hiri berritzailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus

- **Innplanta Laguntzak:** programa honek enpresetako proiektu berritzaileak sustatzen ditu zerbitzuak kontratatzeko, ekipoak erosteko edo enpresarako jarduera estrategikoak garatzeko diru-laguntzen bidez.
- Enpresei laguntzeko programa **ETE Tresna** eskuratu ahal izateko. 2018. urtean, dagoeneko, Donostiako lau proiektu ontzat eman dira 1. Fasean eta beste bi proiektu 2. Fasean.

4.- Finantzazio eta inbertsio erremintak:

- **Elkargi-ko** abalen funtsa.

5.- Berrikuntza eta talentuaren estrategia nazioartera ateratzea **Connecting Talent** erremintarekin

- **Egonaldien Programa.** Proiektu berritzaile bat hirian garatu nahi duten nazioarteko ekintzaileei lekuz aldatzea, ostalua eta ekarpen ekonomikoa bideratzen die. Horrez gain, gaitasun handiko profesionalak erakarri nahi dituzten bertako enpresei laguntzen die adituen, entitateen eta Donostia ezagupen eta berrikuntza nodo gisa kokatzen eta sustatzen duten beste hirien arteko lankidetzen alde egiten du.
- **Connecting Talent Bekak.** Donostiako 25 gazte oraintxe bertan beste herrialde batzuetara abiatzen ari dira, munduko erakunde hobereenetan sei hilabetez beka batekin egoteko.

6.- Berrikuntza ekosistema sustatzea:

- **Berrikuntza Astearen-Weekinn** 5. edizioa. Urriaren 22tik 26ra antolatuko da.
- **Tech Talks Zikloa.** Gaur egungo gaiei buruzko solasaldia, esaterako, garapen teknologikoa edo ekonomia zirkularra.

7.- Merkataritza eta ostalaritza sustatzea eta suspertzea hiriko sektore estrategiko gisa:

- Merkataritza lehiakorrako bilakatu nahi da, aholkularitza, prestakuntza eta laguntza programak abian jarrita, **digitalizazioaren sustapenari** eta IKTen ezarpenari garrantzi berezia emanez.
- **Gabonetako Azoka Handi bat** instalatuko da berriz hirian, zonaldeak eta postuen kopurua handituz.
- Hiriko zonalde gutxietsietan dendak irekitzeko laguntzak.

8.- Kolektibo gutxietsiei laguntzea euren enplegagarritasuna hobetzeko:

- **Genero berdintasunerako** programa lan merkatura sartzeko
- **45 urtetik gorakoak lan merkaturan sartzeko** programa, merkataritzan eta ostalaritzan kontratatzeko laguntzekin eta gaitasunetan orientatzeko eta trebatzeko prozesuekin.

9.- Bertako Klusterren sustapena:

- **Donostia Smart Klusterra:** Smart estrategiarako ideien lehiaketa enpresetarako.



Hiri berritzailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus

- **Guztiona nekazaritzarako elikadura klusterra.** Km0 produktuen sustapena. Ekainean bertako produktuaren eguna antolatuko da. Urban Lur hiri baratzen proiektua garatzea.
- **Donostia Surf City Klusterra.** Osagarrien kategorietarako ideia berritzaileen lehiaketa, ekoizpen prozesuak eta surf taulak eta Donostian Surf Hirien Nazioarteko Sarearen urteko bilera antolatzea, World Surf Cities Network (WSCN).
- **Donostia Moda Klusterra.** Diseinatzaileen eta bertako ekonomia sarearen sustapena.

10.- Donostia Smart City apustuaren sustapena:

- **SmartKalea** Santxo Jakituna kaleari aplikatzea eta Altzan proiektua guztiz ezartzea.
- **Replicate** proiektua Urumea ibarrean proiektua ezartzea (Txomin).



Hiri berritzailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus